

Bizimin



» Loretopetik

Borja Ruiz
Hezitzailea

Aio! Eta kasurik ez. Akordatuko al da nitaz? ez al nau ezagutu? oharkabean iragan da aldamenetik. Begira-begira antzeman dizkiot belarriko entzungailuak. Ingurunetik bakartu, errealitatetik ihes egiteko dio zenbaitek, musikan blai, gustuko duena egiten bes-

tela. Aspertu da antza. Poltsikotik iPod koloretsu eta garesti horietako bat atera eta kanta pasa. Aparailu berria iragarri dute telebistan, zaharkitua zokoratu eta gabonetarako berria eskatzeko garaia!

Norberekeria, eta berehalako atseginarean monopolioa gazteei leporatzen zaie

«Gaurko gazteriaren minbizia agerian», hala dio norberekeria, kontsumismoa eta berehalako atseginarean monopolioa gazteei leporatzen dienak. Ukaezina minbizion kaltea... baino gazteena soilik? Ez ote dira ikasitakoak

hauek denak? Gizartearen minbiziak alegia...

Aisialdia izan da azken garaian gizakiaren konkista handienetakoa. Lan tresna soila, ekoizkortasunaren zerbitzura, ekoizpen mailaren arabera baloratua izatetik, norbere denboraren jabe, aisialdiaren kudeatzaile, aske izatera. Aurrerapauso ukazina. Askatasun horrek ordea beste zenbait erronka azaleratzen ditu ezinbestean. Eta erronka horiei aurre egiteko neurriak gure garaiaren ikur bilakatu dira.

Hezitzailea dio goiko idazpuruak baino egia esan ez dakit zenbatek esango lukeen egiten dudana heziketa denik. «Hezkuntza formalean, eskolan bai heziketa!»

«Familiak behar luke heziketa gune nagusi eta ezinbesteko!»... ados. Gaur egun bizi dugun gizartean berriz, usteak erdia ustel. Eskolatik familiara eta familiatik eskolara, eduki kognitiboez gainerakoen ardura batzuk besteei exijituz. Astialdia, inoiz baino beharrezkoagoa. Prebentzio eta integrazio lanetik, gazteok gazteonganako gertutasunetik eta boluntarioratetik erronkei eta minbiziei aurre egiten saiatzen dena. Uto-

Eskolatik familiara eta familiatik eskolara, eduki kognitiboez gainerakoen ardura elkarri exijituz

piara gerturatuz, amets eta ilusioak eraikiz, minbizia bizimin bilakatuz.

Badira 10 urte astialdiaren asmakizuna, metodologia, pedagogia baliatuz Donostiako Parte Zaharrean XiRiMiRi Gazte Taldea martxan jarri zela. San Bizenteko parrokiaren eskutik eta 15 gazte eta lauzpabost begiralerekin hasitakoak bizirik eta osasuntsu dirau. 10 urtetako lan eskerga taldearena, begiraleena, guraso eta gazteena. Azpiegitura eta zerbitzu urritasuna nagusi den auzo honetan, bilerak, irteerak, mini-rutak, udalekuak eta beste hainbat ekintzaren bitartez, tantaz tanta alternatiba eta erreferente bihurtuz. Joan den azaroaren 22an elkartu ginen merezi eta behar genuen jaia ospatzeko. Ederki ospatu ere. Zorionak XiRiMiRi!